ORIOKO TOKIKO ZAINTZAKO EKOSISTEMAREN JARDUERA PLANA GARATZEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA GENERO IKUSPEGIA TXERTATUTA

1.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA ETA KONTUAN HARTU BEHARREKO OINARRIAK

- Abenduaren 5eko 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legea.
- 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonen zaintzari buruzkoa
- Pertsonengan Oinarritutako Arreta eredua (POA)
- 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena
- Orioko Zaintzaren Diagnostikoa (2024)

2.- AURREKARIAK

2024an, Orioko Zaintza Ekosistema abian jarri eta oinarriak finkatzeko, prozesu parte-hartzailea jarri zuen martxan Orioko Udalak. Prozesu horretan, Orioko zaintza-egoeren inguruko diagnostikoa egin zen.


Prozesu horren mugarri nagusien artean hauek egon ziren, besteak beste: ekipamendu-zorroaren identifikazioa, zaintza-guneen eraketa, arreta-bulego herritarraren testatzea, herri-akordioaren lehen hastapenak edo/eta Gizarte Zerbitzuen eta emakumeen etxearen koordinazio-mahaia eratzea. 2024an egindako prozesuak Orioko Zaintzen Diagnostiko kolektibo eta parte-hartzaile baterantz eraman gaitu, eta horrek agerian utzi ditu zaintza-egoeraren inguruko zenbait gako.

Parte-hartzetik zaintzetan oinarritutako herri bat garatzeko planteamendua da mahai gainean dagoena, bidean autonomia pertsonala mugatua duten eta laguntza beharrean dauden pertsonen inplikazioan fokua jartzea proposatzen duena. Ildo beretik, jasotzen duten arreta mota eta gaur egungo iraupen luzeko zainketen eredua berriz pentsatu beharko dira, bai ekipamenduei dagokionez, bai gaur egungo zerbitzuen eta beste era bateko zerbitzu berrien eraikuntza eta programen ezartzea ere.

Orioko pertsonen bizitzak erdigunean jarriko dituen zaintzaren egituratzea sustatuko duen eredu baten alde lan egitea, horrek dakarren erantzunkidetasunari erreparatuz, etxeko, laneko, genero-sistemako eta gizarteko eguneroko bizitzaren berrantolaketari buruz hausnartuz. Orioko zaintza-ekosistema herri-proiektua baita finean, zaintzea eta zaindua izatea balio sozial, ikusgarri, miresgarri eta etikoa izango den herri-zaintzaile baten proiektu ekosistemikoa.

3.- ORIOKO ZAINTZA-EREDUA NOLAKOA IZANGO DEN

Orioko zaintza-eredua definitzen jarraitzeko, oinarrizko bost ardatz hartu behar dira kontuan, oinarri horiek erronka gisa ulertuta. Horiek lortzeko, prozesu parte-hartzaileko ardatzak paraleloki, kolektiboki eta indibidualki garatuko dira.



4.- LIZITAZIOAREN XEDEA

Orioko zaintza-ekosistema ereduaren oinarriak finkatzeko, Orioko Udalari, diagnostikoan identifikatutako beharrak eta erronkak garatzeko *aholkularitza teknikoa eskaintzea eta ekintzak kudeatzea* da xedea. Beraz, aurreko ataleko proiektuak aurrera eramateko aholkularitza ematea da xedea.

Egin beharreko bide honetan, ezinbesteko baldintza da, sustatu nahi den zaintza-ekosistema ereduaren ardatza, pertsonetan zentratutako arreta-ereduan oinarrituta egotea; horrez gain, sortzen ari den ereduak hurbileko zerbitzuak erabiltzea sustatuko du, zainketen jarraitutasuna bermatuko du, zainketa soziosanitarioak integratzea bilatuko du, pertsona ahal den neurrian bere etxean mantentzea bilatuko du —pertsonen nahia hori dela ulertuta— eta, hori ezin denean, etxean bezala bizi dela bermatzea bilatuko du.

Azken finean, pertsona erdigunean kokatzen den honetan, pertsonaren nahia lehenetsiko da, bere bizitzari zentzua zerk ematen dion kontuan hartu eta hori errespetatzen dela ziurtatzea bilatuko da. Aldi berean pertsona guztien eskubideak bermatzen direla kontuan hartuko da.

Enpresa adjudikaziodunak 2024an burututako Orioko Zaintzen Diagnostikoan eta ekintza-planean jasotakoa ezagutuko du eta hor zehaztutakoaren baitan eskainiko du aholkularitza.

5.- KONTRATAZIOAREN BIDEZ LORTU NAHI DIREN HELBURUAK

Helburu nagusia

Orioko zaintza-ekosistema ereduaren oinarriak finkatzeko, Orioko Udalari, diagnostikoan **identifikatutako beharrak eta erronkak garatzeko *aholkularitza teknikoa eskaintzea eta ekintzak kudeatzea*** da xedea; Orioko zaintza-eredu propioa garatzen jarraitzeko egiten ari den prozesuan pausuak ematen lagundu, bide-orria zehaztu eta ereduaren eraketan aholkularitza teknikoa proiektu/prozesu osoan zehar ematea da helburu nagusia.

Helburu / Erronka zehatzak

- **Zaintza-lanak eraldatzeko egiturak sortzea:** Mahai eragilea egonkortzea, parte-hartze guneak, zaintza-gune edo espazioak, etab.
- **Zaintzaren pedagogia hedatzea:** Komunitatea, elkartegintza, hezkuntza-komunitatea, trebakuntza, adineko pertsonak, etab.
- **Zaintzaileen bizi- eta lan-baldintza hobetzea:** Zerbitzuak, zaintzaileak, trebakuntza edo formakuntzak, etab.
- **Elkarrekikotasuna eta saretze komunitarioa:** Herri-konpromisoak, akordioak, udal-sailen parte-hartza, etab.
- **Arreta eredua eta zerbitzuak hobetzea:** Pertsonengan zentratutako arreta, zaintza-guneak, zerbitzuak, komunitatea, etab.

Prozesu honetan, erabiltzaile nagusiak Orioko herritarrak izango dira, zaintza-lanen arloarekin, zuzeneko edo zeharkako lotura dutenak. Horien artean, profil anitzak aurki ditzakegu:

- Adineko pertsonak, zaintzak behar dituzten edo bermatzen dituzten adineko pertsonak.
- Gurasoak.
- Zaintzaile profesionalak: enpresetan, partikularki etxebizitzetan, entitateetan, etab. lan egiten duten pertsonak.
- Familiak: familiako kideen edo lotura duten pertsonen zaintzak bermatzen dituztenak, seme-alabak, gurasoak, desgaitasuna duten pertsonak, mendekotasun egoeran dauden pertsonak, autonomoak direnak baina laguntza puntualak behar dituztenak, zaurgarritasun egoeran aurkitzen direnak, etab.
- Elkarteak: zaintza-lanen arloan diharduten zenbait elkarte daude, prozesu honen hartzaile eta parte-hartzaile izango direnak. Era berean, herriko merkataritza, kirol eta kultur elkarteak, besteak beste.
- Eguneko zentroa: Baliabide honetan, zainduak diren pertsonak egoteaz gain, zaintzen alorrean lan egiten duten profesionalak ditugu: laguntzaileak eta gizarte-langileak, esaterako. Eguneko zentroko erabiltzaileen familiak ere zerbitzuaren hartzaile dira.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua bermatzen duten profesionalak.
- Emakumeon* etxea, bertako parte-hartzaile eta profesionalak.

- Enpresak, zaintzak bermatzeko lanean dabiltzanak (Eulen, Pinpirin, Loreka, Landuz, etab.)
- Boluntarioak, adinkide, Gurutze Gorria, etab.

6.- METODOLOGIA

Prozesuaren oinarria parte-hartzailea izango da. Ikerketa, ekintza partaidetzan eta gizarte-lan komunitarioan oinarria kontuan hartuta. 2025an komunitateak berak identifikatutako beharren gainean egingo da lanketa eta, horiek aldatzeko, komunitatea bera, talde eragile batean ordezkatua bihurtzen da aldaketaren protagonista. Eremu guztietako ordezkariekin (Udaleko gizarte-zerbitzuak, udal-sailak, alkatetza, enpresa edo zerbitzutakoak, herriko eragileak/komunitatea, zaintza intentsitate ertain zein altua jasotzen duten pertsonak, zaintzaile familiarrak, zaintzaile profesionalak, osasun sistemako ordezkariak, etab.)

7.- EGIN BEHARREKO LANA

Enpresa adjudikaziodunak, jarraian zehaztutako zereginak burutu beharko ditu. Prozesu bizia denez, hau da, hileroko bilerek eta hartutako erabakiek jarraitu beharreko urratsak finkatzen dituztenez, enpresa adjudikaziodunak moldaketak egin beharko ditu, beti ere zehaztutako orduak errespetatuz.

Kontuan izan behar da, 2024.urtean burututako diagnostikoak identifikatutako beharren eta erronken baitan, eraikitzen ari den prozesu bat dela, ondorioz, dinamikoa da. Hori dela eta, enpresa adjudikaziodunak, gaitasuna izan beharko du, egin beharreko lanek eskatzen dituzten hitzaldi, aholkularitza, dinamika, ekintza, koordinazio, kudeaketa eta parte-hartze lanak burutzeko.

8.- MAHAI ERAGILEA

Mahai eragilearen helburu nagusia, zaintza ekosistemaren oinarriak finkatzen jarraitzeko, prozesuan eta talde eragilean mahai gainean jartzen diren lan-lerroak aurrera eramatea da, ikuspegi orokor batetik, proiektuaren osotasuna kontuan hartuta.

Mahai eragilearen bitartez, Orioko Zaintza ekosistemaren inguruan eman beharreko urratsak finkatzen dira, hau da, erabakiak hartzeko gunea da. Ondorioz, enpresa adjudikaziodunak, mahai horietan parte hartu, aholkularitza teknikoa eskaini, ekintza planean zehaztutakoa betetzeko pausuak ematen lagundu, koordinatu, kudeatu eta artikulatu beharko ditu. Mahai eragilearen funtzioak, zuzenki loturik daude enpresa adjudikaziodunak burututako bestelako eginbeharrekin.

Mahai eragileak, besteak beste, Orioko Udalak, Orioko Udaleko Gizarte Zerbitzuek, Orioko Emakumeen Etxeak eta berdintasun irizpideak txertatzeko kontratatutako aholkularitzak osatzen dute. Hortaz, adjudikaziodunak, horren parte izan beharko du. Maiztasun finkorik zehaztuta ez duen arren, orohar, mahai eragilea hilean behin

elkartuko da eta, horrela dagokionean, mahaian bertan erabaki eta finkatuko da bileren beharra.

9.- GIZARTE-ZERBITZUEN TALDE OPERATIBOA

Orioko zaintza-ekosistema eraikitzeko eta egungo eredua eraldatzeko, ezinbestekotzat jotzen dugu, gaur egun, gizarte zerbitzuen artatze eta arreta prozesuak birmoldatzea.

Orioko herritarrek bizitza duin eta komunitario bat eduki ahal izateko, beharrezkoa da pertsonen zaintza beharrak ardatz izango dituen eta bizi-planak bermatuko dituen ikuspegia izatea.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak, Orioko Gizarte Zerbitzutako profesionalei, zaintza beharrak dituzten pertsonen artatze eta arreta prozesuan, kasu kudeaketaren metodologia inplementatzeko beharrezko formakuntza, aholkularitza eta baliabideak ematea da.

Orioko herrian bizimodu komunitario, duin eta pertsonaren nahiak ardatz jarriko dituena txertatu ahal izateko, gizarte zerbitzuetan emandako arreta ereduaren berrikuspena eta eraldaketa gauzatzeaz gain, beharrezkoa izango da, herritarrekin hartu emanean dauden beste sistemekin ere elkarlana sustatzea; horien artean osasun sistema.

Ondorioz, adierazitako funtzioez gain, enpresa adjudikaziodunak, Orioko gizarte eta osasun zerbitzuen arteko harremana aztertu eta koordinazioa areagotzeko oinarriak finkatzeko kudeaketa, koordinazio, aholkularitza eta bitartekaritza lanak burutuko ditu.

Orokorrean, gizarte zerbitzuen talde operatiboa, hilean behin bilduko da, identifikatutako beharren arabera, hilean bitan biltzeko aukera bermatuko delarik. Era berean, osasun sistemarekin burutu beharreko hartu emanak, burututako azterketa eta koordinazioen baitan zehaztuko dira.

10.- ZERBITZUEN TALDE OPERATIBOA

Orioko zaintza eredua eraldatu ahal izateko, nahitaezkoa da Orioko herrian zaintza lanetan diharduen zerbitzu ezberdinekin harremana eta koordinazio lanak gauzatzeko bidak izatea.

Hori horrela izanik, Orioko Zerbitzuen talde operatiboa artikulatzea izango da enpresa adjudikaziodunaren helburuetako bat. Besteak beste, zaintzen inguruko ikuspegi partekatu bat eratu, prozesu bateratuak ezarri, tresna bateratuak eraiki, indargune eta ahulguneak landu, etab. Zerbitzuen talde operatiboak ere, zaintza lanen inguruan jarduten duten zerbitzuen koordinazioa, udal gizarte zerbitzuekin ere sustatzea helburu izango du.

Orokorrean zerbitzuen alde operatiboa hilean behin bilduko da. Balorazio teknikoaren baitan, maiztasuna areagotu beharko balitz, hilean bi bilera egiteko aukera egongo da.

11.- DISEINUA ETA KOORDINAZIOA

Enpresa adjudikaziodunak, kudeatu beharreko zereginak garatzeko, aholkularitzak, barne lanak, memorien prestaketa, dirulaguntzen prestaketa, formakuntza, ebaluazio- txostenak, saioak, etab. prestatzeko ordu poltsa bat izango du. Poltsa horren bidez, barne lanak egiteaz gain, prozesuan zehar beharrezkotzat hartzen diren bestelako jarduerak kudeatuko ditu.

12.- ZAINTZA-EKOSISTEMAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIO SISTEMATIKOA

Pertsonan Oinarritutako Arreta (POA) ekosisteman planteatzen diren lerro nagusien jarraipena prozesu osoan zehar planteatuko den ebaluazio sistema kuantitatibo eta kualitatibo baten bidez jasoko da.

Zaintza ekosistemaren eraikuntzaren artikulazioaren arrakasta neurtzeko planteatzen diren tresnak hilabete jarraipen bilerak eta izandako hastapenen difusiorako komunikazioa gauzatzean datza.

Helburu hauek aurrera eramateko metodologia iteraktibo eta parte-hartzaile bat garatuko da. Talde operatibo ezberdinak sortuko dira, eta eztabaida marko paraleloak (talde eragilea, talde operatiboak, jarraipen lan taldeak, eta proiektu zehatzak sortzeko egongo diren asanbladak, ostera desagertuko direnak). Helburua sistematikoki prozesuaren une bakoitzari egokituko den egitura parte-hartzailea sortzean egongo da, eta metodologia aldetik, zerbitzuen eta proiektuen eraketara zuzenduriko prozesuak gauzatzen dituen metodologia iteratiboarena da.

- Jarraipen fitxa kuantitatibo eta kualitatiboen diseinua
- jarraipen fitxa kuantitatiboak pasatzea
- jarraipen fitxa kualitatiboak eta ebaluazio bilera kualitatiboak egitea
- ondorioen eraikuntza eta difusioa

Dokumentu hauetan, emakumeen eta gizonen egoera, behar, interes, jomuga eta arazo espezifikoen balorazioa jasoko duen atal bat erantsiko da.

13.- KRONOGRAMA

Proiektuak bere osotasunean dituen erronkak egutegira ekarrita, gutxi gorabehera hauek dira:

ERRONKAK	DATA AURREIKUSPENA
Mahai Eragileak	2025eko abendura bitartean
Gizarte Zerbitzuen talde operatiboa	2025eko abendura bitartean
Zerbitzuen talde operatiboa	2025eko abendura bitartean
Diseinua eta koordinazioa	2025eko abendura bitartean
Jarraipena eta ebaluazio sistematikoa	2025eko abendura bitartean

Adjudikaziodunak aholkularitza eta laguntza teknikoa fase guztietan eskaini beharko du adjudikazioa egiten denetik aurrera.

14.- PROZESUAN AURREIKUSTEN DIREN ORDUEN ESTIMAZIOA ETA HORREN INGURUKO AZALPENAK

ERRONKAK	ORDUEN AURREIKUSPENA
Mahai Eragileak	168 ordu
Gizarte Zerbitzuen talde operatiboa	168 ordu
Zerbitzuen talde operatiboa	114ordu
Diseinua eta koordinazioa	322 ordu
Jarraipena eta ebaluazio sistematikoa	256 ordu
GUZTIRA	1028 ordu

Prozesuan zehar egingo diren bileretan finkatuko dira egin beharreko lanak, eta adostutako horiek aurrera eramatera bideratutako orduak dira lana egin ostean fakturatuko direnak.

Ekintzak zehazteko bileretan, memoria txiki bat aurkeztuko du adjudikaziodunak, burututako ekintza zehatzekin. Udalak bestelakorik esaten ez duen bitartean.

Aurreikusten diren orduak, aipatutako planifikazioaren baitan egingo dira, neurri handi batean Orion bertan. Ezinbestekoa izango da, lantaldeak burututako orduen zatirik handiena Orion egitea. Orioko Udalak horretarako espazio egokia izatea bermatuko du.

Orion, 2025eko apirilean